



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2009-02-14

VIIURTEA 1.629.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iruran, gaztetxoak ijitoz jantzita eta eskuan zartagiak eta mailuak zituztela, atzo arratsaldean. I.GARCIA

## IRITSI DIRA AURTENGO INAUTERIEN IRAGARLEAK

**TOLOSALDEA** Anoeta, Alkiza, Ibarra eta Iruran ijitoz jantzita herritar ugari atera ziren atzo kalera; gaur Tolosako txanda izango da s

## Merkatariak gehien kaltetzen ditu krisiak sortutako izuak

**EKONOMIA** Merkatari elkarteek kontsumitzeari guztiz ez uztea eskatzen diete herritarrei s



R. CALVO

**MANUEL MICHELENA PP**

«Gure alderdiak zergak jaitsi eta inbertsioak bultzatuko ditu»

**TOLOSA** Alderdi Popularreko zerrendagaiak «aldaketarako apostua» egiten dutela dio s



**Otsailak 14 eta 21**

Irekita, Sarrera doan, Pub Muxu  
DJ Julen

**Otsailak 28**

**SU TA GAR** EN KONTZERTU HANDIA

- SALMENTA PUNTUAK:
- Zunbeltz musika denda (Tolosa)
  - Peritza taberna (Leitza)
  - Leku ona taberna (Etxarri -Aranatz)
  - Ilargi taberna (Lekunberri)
  - tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

[www.salamuxu.com](http://www.salamuxu.com)

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI



# Merkatariei uneoro krisiaz hitz egiteak «kalte handia» egiten die



Egun merkealdi garaian daude dendak eta Inauterien gertutasunak ere, Tolosan behintzat, zerbait arintzen du kontsumoa. I. GARCIA

## Ekonomia »

Eskualdeko merkatariek elkarrekin kontsumitzaileei hainbeste ez izutzeko eskatzen diete eta kontsumoa guztiz ez gelditzeko.

### IMANOL GARCIA

Krisi ekonomikoaren baitan dendak jabeak daude ere kaltetuen artean. Eskualdean dauden hiru merkatariek elkarrekin bat egiten dute gauza batean: komunikabideetan egunero kirisi ekonomikoari buruz hitz egiteak eta egoera gaizki dagoela entzuteak «kalte handia» egiten die. Horrek jendea izutzen duela eta kontsumoa jaisten dela azaltzen dute.

Villabonako Oria elkarteak Mari Jose Irazustak azaltzen duen

nez, «komunikabideetan krisia dagoela esaten da eta ikusten da jende pila kalera botatzen ari direla, eta egun guztia krisia gora eta behera. Bakarririk telebistan enpresa handiak azaltzen dira, baina komertzio txikiari pila bat eragiten dio, denei eragiten dio. Batez ere, egiten ari diren publizitatearekin, hori oso gauza txarra da guretzat. Diru pixka bat duen jendeak ere ez du gastatu nahi. Beldurra dago».

Tolosako Alde Zaharra Dendak elkarteak Itxaropena Elordik gaineratzen duenez, «krisia egunero ateratzea komunikabideetan tratatu txar psikologikoa da. Dirua baldin badaukazu ere ez duzu erosten».

Berealdetik, Igarondoelkarteko Anate Iturralkdek dioenez, «dena kate bat da eta gu beste kate begi bat gara. Gu sufritzen ari gara ere egoera ekonomiko eta hainbesteko psikosia dago, jendeak kontsumoa jaisten duela. Nik uste dut ez garelako hainbeste izutu behar eta zentzuz kontsumitu behar dugula, baina

ezin garelako gelditu. Gure irudipena da krisia dagoela, baina ez da hain izugarria. Beste krisi batzuk ere izan dira. Guztia zikloetan oinarritzen da». Horregatik dei egiten du Iturralkdek kontsumoa ez gelditzeke: «Kontsumoa gelditzean badugu, gero kate guztian eragina izango du. Ezin dugu gorpila kolpean gelditu».

Irazustak gaineratzen duenez, «ez dut esaten krisia ez dagoela, dudarik gabe badagoela, baina gero egun guztian horri buruz hitz egitea... horrek psikologikoki jendeari pila bat eragiten dio. Ez dira ari batere gogoratzen zer mina ematen dion horrek komertzio txikiari. Ez dakit nahita egiten ari diren edo azaltzen ari diren gauza hauek denak beste zerbait gortetzeko».

### Eguno egoera

Eguno egoerari buruz elkartearen hiru ordezkariak ez datoz guztiz bat. Oria elkarteak Irazustak azal-

tzen duenez, «Gabonak ondoren ez gara bildu kideen artean, baina ikusten da gaizki dagoela egoera. Jendeak ez du gasturik egiten. Merkealdi garaia da, baina ez gara hainbeste saltzen ari».

Alde Zaharra Dendak elkartetik ez dute hainbeste nabaritu eragina. «Eguberrietako kanpaina egin zenean beldurrez geunden zer salduko genuen», dio Elordik, «hainbestekoa zelako krisiaren presentzia komunikabideetan. Baina pasatu ondoren, konturatu gara pixka bat salmentak jaitsi direla, baina kontentu gaude. Hori bai, beranduago hasi ginen saltzen». Orain Inauteriak datozela eta jendea hasi da mugitzen berritxo, baina Eguberrietan bezala, beranduago. «Mozorro berriak egiten ari da jendea, baina gehienak etxean dituztenak konpontzen ari dira», azaltzen du Elordik.

Igarondotik diotenez ere, oraindik ez da nabaritu hainbesteko kontsumo jaitziera. «Negu gogorra

egin duenez, ez dugu hainbeste nabaritu», dio Iturralkdek. «Jendeak gehiago begiratzen du, noski». Kontsumo jaitziera nabaritu den arloa batez ere emakumeentzako arropak direla gaineratzen du. «Batez ere denda mota horiei eragiten ari zaie. Krisiaz gain, baita merkatalgune handien eraginez ere». Gabonetako kanpaina aurreko urteetan bezala joan dela dio Iturralkdek, baina negu gogorra izateak bere kasuan kontsumoa bultzatu duela esaten du.

Bere aldetik, Irazustak eta Elordik bat egiten dute eguraldi txarrak ere kontsumoa atzeratu duela esatean. «Jendea gehiago kostatzen zaio etxetik ateratzea eta dendaren erakuslehoak ikustea», azaltzen dute.

### Etorkizunera begira

Etorriko denari begira, Irazustak nahiko ilun ikusten du dendei dagokionez. «Egoera ekonomiko asko ari zaigu eragiten, baina betikogoaia da: ez digute laguntzen. Laguntzak ematen dituzte, esaterako, lana mantentzeagatik. Baina zenbat komertzio txiki daude lana ematen dutenak eta autonomoak ere pila bat gaude», kexatzen da Oriako kidea. «Nik uste dut bagaudela gutaz zerbait gogoratzeko egoeran. Alokairua ordaintzen ari direnak nahiko gaizki pasatuko dutela uste dut, ez baita dirurik sartzen. Alokairua ordaindu eta soldata ez baduzu ateratzen, alperrik zaude lanean».

Bat egiten dute hiru elkarteak aurrera begira ahal dela kontsumoa ez dela murriztu behar azaltzean. Irazustak dioenez, laguntzak jaso behar dituzte: «Maileguak ematea interes baxuagoetan lagunduko luke, baita alokairua ordaintzen ari direnentzako laguntzak ere. Kontua da enpresa handiak azaltzen direla medioetan, 1.200 lagun langabezira bota dituztela esanez. Baina beste 1.200 lagun joan daitezke kalera denda hori eta bestea... itxi direlako».

Bere aldetik, Elordik Inauterien ondoren zer ikusiko den ez dakitela azaldu du. «Baina aurrera begiratu behar dugu. Esperantza pixka batekin eta animoekin eta eguzkia ateratzen bada, nik uste dut salduko dugula eta aurrera egingo dugula». Iturralkdek gaineratzen du lanean jarraitu behar dela eta I+D bezalako gaiak jorratzen joan behar direla.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**E Elkarrizketa**

**MANUEL MICHELENA** Gipuzkoako Alderdi Popularraren zerrendagaia

# «Zergak jaitsi eta inbertsioak bultzatuko ditugu»

**Politika** » Michelenak PPK «aldaketarako» apustua egiten duela dio; «guk ez dugu Ibarretxe berriz ere jarterik nahi».

REBEKA CALVO

Manuel Michelena PPren Gipuzkoako legebiltzarrerako zerrendan laugarren postuan aurkeztu da, Lizartzako zinegotzia ere bada, eta ondoko lefroetan bere alderdiak martxoaren leku hauteskundeetara begira jarraituko dituen hirizpide nagusien berri eman du. **Zeintzuk dira Alderdi Popularraren ardatzak hauteskundeetara begira?**

Askatasuna eta krisiaren aurkako borroka. Lehenengoari dagokionez, mundu mailako askatasunaz ari naiz eta baita indarkeria erabiltzen dutenen aurkako borroka ere. Euskal herritar guztiak terroismoaren mehatxurik gabe bizitzeko aukera eman nahi diegu. Gurasoek euren seme-alaben hezikuntza ereduak aukeratzeko ere askatasuna nahi dugu. Bigarren goari erreparatuta, krisi ekonomikorako irtenbide posibleak ere baditugula esan nahi dut. Izan ere, EAJ alderdiak Euskal Autonomi Erkidegoan krisiaren kontrako txertoa hartua dugula dioen arren, ez da egia; euskal industria erakuntzaren eta autogintzaren menpe dago.

**Antonio Basagoiti da PPren zerrendaburua, zer da lehenkari-gaiak eskaintzen duena?**

Gure zerrendaburuak orain arteko bidea jarraituko du; ETArekin negoziatzeari ezezkua emanaz. Zentzu honetan, lehendakariatik eta Eusko Jaurlaritzatik orain arteko bidea baztertzeak eskatzen diegu, hau da, epailetzatik edota Estatuak erakundeetatik etortzen diren erabaki guztien erabateko urrutzea baztertzeak. Gure ustez Eusko Jaurlaritzatik Estatuak gaintzeko erkidego automoen arteko harremana sendotu behar da, hori ona izango baita EAerentzat. Bestalde, krisiari dagokionez, Basagoitik zergak jaitsiiko ditu eta ekoizpen-inbertsioak bultzatuko ditu. PPrentzako oso garrantzitsua da, era berean, erakundeetatik bultzatuko gastuan zorrotasuna nagusitzea, gastuak murriztu behar dira, inbertsioak eta gizarte-gastua ez murrizteko.

**Eta langilegoari dagokionez?**

Lanak asko arduratzen gaitu. Irtenbideak bilatu behar ditugu; lanpostuak enpresek ematen dituzte eta beraz, jarduera sortzen den heinean sortuko dira lanpostuak. Ezin ditugu kalean utzi inongo baliabiderik gabe geratzen diren pertsona guztiak, laguntzak abiarazi eta ekonomia jarduera piztuko duten neurriak hartu behar ditugu. Lanpostuak sortu behar dira.

**Eta zer proposatzen duzue jarduera ekonomikoa sortzeko?**

Herritarrei zergak jaitsea, hartara herritarrek kontsumitzeko diru gehiago izan dezaten. Enpresei begira, norbaitek lagundu behar die euren jarduera hobetzeko eta munduan lehiatu ahal izateko. **Krisia alde batera utzita, hemen, Eusko Herrian, badugu pil-pileen dagoen beste gairik, Abiadura Handiko Trenaz ari naiz. Zuek aldeko jarrera duzue, baina ez zaretze EAJ eta PSERekin ados jartzen. Zein da zuen jarrera?**

Gaiak aurpegi asko ditu, poliedrikoa da. Zentzu honetan kontu bat argitu nahi dut: PPK Espainiako Gobernua utzi zuenean, 2004an, urte horretako aurrekontuetan ehunka milaka milioi pezetan utzi zituen esleitura AHTrako, baina Gobernurak PSOE iristerakoan

**«EAJk Euskal Autonomia Erkidegoak krisiaren kontrako txertoa hartua duela dio; ez da egia»**

partida horiek desagertu egin ziren eta beste helburu batzuetara bideratu zituzten. Guk beti egin dugu EAeko AHTren alde, gure ustez ona baita EAerentzat, bategitik, hiru hiriburuak era azkarrago, zentzuzkoago eta modernoago batean batuko ditutelako, eta bategitik, EAE Europako iparraldearekin eta Espainiako hegoaldearekin lotuko duelako. AHT Europako proiektu baten barruan ikusi behar da, ezin dugu pentsatu AHT proiektu euskalduna denik, nahiz eta neurri batean bada, euskal he-



R. CALVO

rritarrei eragiten dietelako. Zentzu honetan haxe argitu nahi dut; AHTren inguruan ezin dugu ordainketa mota eta finantzaketa nahastu, izan ere finantziarioa Estatuatik eginda dago Europako fonduekin edota dena delakoarekin, baina kupoaren kontura ordaintzen ari da; espainol guztiak eta europar guztiak ordaindutakoa da, ez euskal herritarrek bakarrik. AHT oso interesantea eta garrantzitsua da EAEReko. Azpiegitura hau primeran etorriko zaigu barruko loturak hobetzeko.

**Hauteskundeetara bueltatu, Autzitegi Konstituzionalak D3M eta Askatasuna legeak kanpo utzi ditu.**

Batasuna ETAREN zati zela esan zenean gu ados geunden eta autzitegiaren sententziaren kritiko izan badaiteke ere kasu honetan PP ez da batera kritikoa erabaki honenkin. Beti pentsatu izan dugu eta epailearen sententziak errealtatearekin egin du bat. Hauteskunde honetarako azaldu diren hautesle zerrenda hauek Batasunarekin lotuta daude, beraiek ere ez dute kontrarikesan, eta beraz, bi zerrenda hauek lege kanpo uzteak logika du, izan ere, denek daki-gu eta frogatu egin da gainera, Batasuna ETAREN zati dela.

**Martin Scheininek, Terrorismoaren Kontrako Borrokan Giza Eskubideak Bermatzeko NBEko kontalaritari bereziak, Espainian terroismo terminoa gehiegi zabaltzen dela eta honek parte-hartze politikorako eskubidea urratzen duela esan berri du, ordea.**

Berak esandakoa errespetagarria da, baina Alderdiak Legea demokratikoa da oso eta helegite bat edo apelazio bat dagoen guztietan gertatzen da agerian. Estraburgoren helegite edo apelazioek ez dute inongo etorkizunik gurean.

**Zein da azken lau urteetan Eusko Jaurlaritzak osatzen duen hirukoaz egiten duzen balorazioa?**

Hirukoaren lana oso urria izan da,

lau urte hauetan egon badira, gaitzera, sozialisten babesarengatik izan da. Nola uzten du agerian Gobernu batek bere babes falta? Aurrekontuak eta legeak onartzerako garaian eta zentzu honetan hirukoak bere legeak eta lau aurrekontuak sozialisten babesarekin atera ditu aurrera. Ibarretxek lau urte hauetan Espainiarekiko banaketa ekartzen duten egitasmo proiektuak atera nahi izan ditu aurrera. Guretzako sozialistek egindakoa oso etsigarria izan da; ez gaude ados uraren legerarekin, ezta zoruaren legerarekin, ezta hezkuntza politikorekin...

**Azken lau urteetan pasa den urriaren 25erako iragarritako herri galdeketak ere zeresan handia sortu du.**

Azken urteetan, 6 edo 7, ez bakarrik legealdi honetan, Ibarretxek, nahita, estatu konstituzionalaren mugak gainditu ditu. Une batean Zapaterok Espainiaren batasuna batera argi ez zuela zirudien eta honen harira, Ibarretxek Espainiar Estatu estutu ahal zuela pentsatu zuen. Baina estrategia honek

**«Gu elkarrizketaren alde gaude, baina ez edozeinekin eta ezta edonola ere»**

porrot egin du, behin saiatu zen, arduragabeki gure ustez, eta orain legealdi honetan berriz ere gauza bera egin du. Bigarren ekimen hau lehenengoaren, aurreko legealdikoaren, kopia bat da. Ibarretxeren ekimenek Eusko Jaurlaritzaren beraren banaketa ekartzen zuten. Berak beti esaten du herri hau asko maite duela, baina ez du ematen. Gizon honek, Ibarretxe jauna, muturreko nazionalismoaren lehenkaria da eta argi utzi du gainera. Ibarretxek ere ekimenak egiteko ere ez du bere alderdi guztia

babesa izan. Ekimen honek ez zuen ez babes konstituzionalik, ez herritarrena, ez legearena, ez demokraziarena ere.

**Ez duzue EAJekin gobernua osatzeko aukerik ikusten, beraz.**

Une honetan EAJren eta PSERen arteko paktoa ikusten dugu. Baina hauteskundeetara itxaron behar dugu, hauteskundeen emaitza nahiko irekia dagoelako. Nik ez dut uste EAJk hirukoarekin ere aulki nahikoak izango dituenik eta ez dakigu ere ezker abertzaleak nonbaitetik aterako duen aurkezteko modua. EHAKrekin egin zuen moduan. Ez dakigu zer gertatuko den, baina Patxi Lopezek aulkien gehiengo lortzen badu, oso zaila izango da PPK ez laguntzea lehendakari izateko, guk aldekataren aldeko apustu garbia egin dugu, eta beraz, lagunduko genioke. Argi dago, guk ez dugu Ibarretxe jarraitzerik nahi.

**Zein da herri honetan bizi den gatazka egoera gaitzeko gakoak, zuen iritziz?**

EAEan ikaragarriko banaketa dago eta aspaldiko da. Gernikako Estatuak onartu zenean kontziliazioaren aldeko aurrerapausoa emango zela uste genuen, baina ez da horrela izan. ETAREN presentziak dena desitxuratu du eta baita euskal nazionalismoak ere, ETAREN porrotean guztion porrota ikusi zuen eta, baina ez da horrela. 1998. urtean ia lortu genuen ETArekin akabatzea eta une horretatik aurrera euskal nazionalismoak euskal gatazkaren beste irakurketa bat egin zuen, inoiz konpondu ez balitz bezala, baina konpondu zen, eta Espainiako transizioan eman zen konponbidea. EAJk ere onartu zuen bere ustean, baina gero Gernikako Estatuak ez dela nahiko diote. Irtenbide batera iritsi ginen eta hortara itzuli behar dugu. Euskal gatazka handietsita dago eta batzuek artifizialki eusten diote.



Mikel Errazkin, Periko Peñagarikano eta Gorka Otxoa-Aizpurua, Anoetako udaletxean egindako agerraldian. I. GARCIA

## Herriko artxibo kulturala osatu nahi du Udalak herritarren laguntzarekin

**Anoeta** » Herritarrek dituzten argazkiak, bideoak eta audioak udaletxera eramanez dituzten eskatzen dute Udaletik.

**IMANOL GARCIA**

Anoetako Artxibo Kulturala osatzeko bidean jarri da Udala. Herritarren arteko oroimen historikoa sorkuntza bultzatu nahi du eta horretarako anoetarren laguntza eskatu du. Herritarrek dituzten argazki, bideo eta audioak eskatu ditu, hauek digitalizatu ahal izateko eta datu base bat sortzeko. Periko Peñagarikano alkateak, Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotziak eta Mikel Errazkin Aranzadi elkarte-kideak eman zuten proposamenaren berri.

2000. urtean hasi zen Anoetako Udala bere historia arakatzeko dokumentu historikoen bila. Dokumentu historikoak biltzea zen, hain zuzen, helburuetako bat eta Aranzadi Zientzia Elkartearekin harremanetan jarri eta beraiek lagundu dute lan horretan. «Eskertu beharrekoa da orain arte egindako lan hori», azaldu zuen Peñagarikano.

Araketa horretan 4.600 dokumentu ikusi dira eta bereziki XVI. mendean hasi eta XIX. mende bukaera arte biltzen saiatu dira. Behin dokumentazioa osatu ondoren, lan hori aprobetxatzu bi argitalpen egin dira. Bat 2005. urtean, Anoetako baserri buruz, eta bigarren bat, iaz argitaratu zena, herri sinismenaren inguruan. «Orain arte bildutakoari segida eman nahian XX. mendeko beste argazki eta historia bilketari ekin nahi izan diogu», azaldu zuen alkateak.

Argazkiak, bideoak, audioak eta herriko historiarekin zerikusia duten beste dokumentuak biltzen hasiko dira, beraz. Fitxa baten inguruan zeinek ekartzen duen eta nola ekartzen duen jasoko da. «Interesgarria iruditzen zaigu dokumentu horren atzean dagoen bizi-pena kontatzea», azaldu zuen Peñagarikano. «Jendeak askotan argazkia irakurri egiten du eta atzealdean informazio asko egoten da eta hori guztia ere bildu egin nahi dugu. Ez da argazki kolektzioa bakarrik izango, argazki horren inguruan egon daitekeen informazio ere bildu nahiko genuke».

Alkateak azaldu zuenez, «bildu bahi genituzke bai familia giroko-

ak, bai herrian gertatu den edozein ekintza sozial, kultural edo bestelakoak. Gauzarik txikiena interesgarria izan daiteke».

### Kultura Batzordearen helburu nagusienetakoa

Gorka Otxoa-Aizpurua zinegotziak azaldu duenez, «Kultura batzordearen helburu nagusienetakoa oroimen kolektiboa berreskuratzea da». Hiru zirkulu zehaztu zituen bide horretan aurrera egiteko. Alde batetik, historiarena. Hor kokatzen da 2000. urtetik hona Anoetaren artxiboa arakatzeko egindako lana. Bestetik, oroimen historikoa. Hor kokatzen da herriko tradizioen berreskuratzea. Esaterako, gaur bertan herrian egingo den dantza-sokarena, orain 6 urte berreskuratzen zena. Azkenik, beste zirkulua oroimen komunaren da, hau da, herritarrek dauzkaten artxiboak jaso eta gordeztearena. Eta lan hori sustatzeaz ere ekingo dio orain Udalak.

Mikel Errazkin Aranzadiko kideak azaldu zuen aplikazio informatikoa sortu dutela, jasoko den dokumentazio guztia biltzeko. Aurrera begira dinamizazio lana egingo dute material guztia osatzen joateko. «Oroimen historikoa puzzle bat bezalakoa da, pieza txiki txiki osatutakoa. Herritarren argazkiak, bideoak eta audioak dira pieza txiki horiek», dio Errazkin. Bestetik, artxibo hori guztia digitalizatu, sailkatu eta datu base bat osatu dute aplikazioaren bitartez, gero erabilgarria izan dadin herritarrentzat eta irakurlearientzat.

Dokumentazioa jasotzearen fasea ekañera arte luzatuko da eta tarte horretan ere sailkapena egiten joango dira. Gero lan hori jarraitzen emango diote. Errazkin-dari lanetan artzeko extra bezala eskaintzen naiz. Juan Luis: 629 65 26 40.



## Arregi gogoan, 28 urte eta gero

**ZIZURKIL** » Joxe Arregi zizurkildarra torturatu eta hil zutela 28 urte bete ziren atzo. Hain justu, atzoko eguna da Euskal Herrian Torturaren Aurkako Eguna. Hainbat herritarrek lore eskaintza egin zuten atzo arratsaldean hilerrian. Ondoren, elkarretaraztea egin zuten eta hori amaituta torturaren inguruko hitzaldia izan zen. I. GARCIA



Aipamen bereziak jaso dituzten guztiak oroigarriekin. AIURRI

## 'Aiurri' eta Larramendi Bazkunak Aipamen Bereziak banatu dituzte

**Gizartea** » Aiztondotik, Larraulgo eskola taldeak gizartean eta Asteasuko soka-dantza taldeak kulturaren jaso dituzte.

**ERREDAKZIOA**

**Aiurri** aldizkariak eta Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 2008. urteko Aipamen Bereziak banatu dituzte. Aiztondokoei dagokionez, Asteasun soka-dantza berreskuratzen duen gazte taldeari banatu zitzaion kulturaren eremuan. Gizartean eremuan, Larraulgo eskola taldeari banatu zitzaion, iaz herri berriz eskola abian jartzeagatik.

Ohorezko aipamena Joxe Mari Olazabal andoaindarrak jaso du, gizartegintzaren hainbat alorrean egin duen lanarengatik. Asteasuko soka-dantza berreskuratzen duen gain, kulturaren eremuan ere Andoaingo Urki dantza talde-

ri eta Iñaki Arregiri ere banatu diote, Gurutze Santuaren egunean ezpatadantza berreskuratzeagatik. Bestalde, kirolaren alorrean, aipamen berezia Kattalin Olasagasti eskubalo jokalarari eta Jon Gaztañaga futbolari andoaindarrak jaso dute, nazioarte mailan izan duten «jardun bikanagatik».

Larraulgo eskola taldearen ordezkari gisa, Xabier Mujikalkateak eta Maider Sanz gurasoak jaso zuten. Mujikak azaldu zuenez, eskola 16 urte arte finkatzea da aurrera duen gazte taldeari banatu zitzaion kulturaren eremuan. Bestalde, bere nortasuna galdu nahi ez duen herri batentzat eskola beharrezkoa zela adierazi zuen.

Asteasuko soka-dantza berreskuratzen dutenen ordezkari gisa Mikel Maizek hitz egin zuen. Aipamen berezia jasotzerakoan Maria Angeles eta Miren Uzkudun ahizpa asteasuarrak eskerrak eman zituzten, beraiek gidatu baitaie taldekoien dantza hori berreskuratzekeo bidean.

**Iriarte jatetxea**

**Inauterietako menua 38€**

Hasteko:

- Idiazabalgo gazta kroketa
- Ankoan ensalada
- Foie freskoa plantan
- Baserriko arrautza, odoikia eta trufa zukuak

Aukeratzeko:

- Lupa plantan barazkiekin
- Txerrikumea erreta

Postrea:

- Kremazko xirulak.

Edaria barne. Beltza, gormia. Kriantza Rioja.

Tel.: 943 683 078 • BERROBI



Ibarran plazan elkartu ziren kaldereroak, eta gurdi eta guzti ibili ziren. R. CALVO



Anoetako plazan gaztetxo ugari elkartu ziren. I. GARCIA



## Musika Eskolakoen doinuak

**TOLOSA** «Musika Eskolako Ikasleen Bandak eta Abesbatzak Kaldereroen kontzertua eskaini zuen atzo arratsaldean Leidor aretoan. Musika Eskolako aretoan egin izan dute, baina aurretik, «karrakastatsua izaten

dela ikusita» ikusirik Leidorren egitea erabaki dute, eta asmatu dute, jendez beteta egon baitzen. Elkarte-etako piezak, kaldereroenak eta Inauterietakoak izan ziren entzungai. IT.

# Kaldereroak Inauterien iragarle

**Kaldereroak** » Alkizan, Anoetan eta Iruran herritar ugari atera ziren atzokoan ijitoz jantzita; gaur arratsaldean, Tolosako txanda izango da.

### ERREDAKZIOA

Etorri dira kaldereroak, urtero bezala, zartagiak eta kazolak eskuetan, musika tresnak balira bezala, eta euren ohiko abestiak kantatuz. Geroz eta gertuago dauden Inauteriak iragartzea izaten da hauen xedea, eta gurean Tolosakoek indar gehien duten arren, Ibarran, Anoetan, Iruran edota Alkizan ijitoz jantzita herritar ugari atera ziren atzokoan.

Alkizan, Amixuri kantuzaleen eskutik atera ziren kaldereroak kalera, eta mokadutxo hartzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek. Anoetan, Ibarran eta Iruran, berriaz, Loatzo musika eskolak antolatuta atera ziren, gehien bat,


gaztetxoak izan zirelarik ijitoz mozorrotu zirenak. Guztietan ere, ederki igaro zuten musika bilakaturiko zarata eginez.

### Tolosan, gaur arratsaldean

Tolosan gaur arratsaldean aterako dira kaldereroak. Lehenago, goizean, erraldoiak eta buruhandiak aterako dira kalejiran Plaza Zaharretik. Arratsaldean, berriaz, 16:00etan Aiz-Orratz elkarte txarangara irtengo da elkartetik, eta 16:30ean elkarte honek antolatutako haur jaialdia izango da Leidorren. 19:00etan, Kaldereroen konpartsa aterako da Plaza Zaharretik, eta 23:30etan, Incansables txarangak kalez-kale ibiliko da.



Iruran, herrian zehar egin zuten kalejira. I. GARCIA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Sagain mendi elkarteak San Donatora irteera antolatu du biharko

**Asteasu** » 08:30ean abiatuko dira udaletxe aurretik, eta arratsaldean itzuli; zailtasun ertaineko txangoa izango da.

### ERREDAKZIOA

Sagain mendi elkarteak antolatuta San Donatora joango dira bihar. Unanetik abiatuko dira, jarraian, Ihurbain tontorretik igarotuz, Berianetik eta Goñin amaituko dute. Ibilbidearen lehen zatia nahiko gogorra da, 900 metroko malda baitu, baina handik aurrera dena gutxi gaitzika beherakoa da.

Elkartekoek dituzten azken datuen arabera, baliteke elurra egotea baina ez da askorik izango. Dena dela, polainak dituztenek, hauek eramatea gomendatzen dute. Eguraldia ere, aurrerapenak baiezatzatzen badira, ona egingo du. Irteera egun osokoa da, eta arratsaldean itzuliko dira.

Jakitera eman dutenez, zailtasuna ertaina da, teknikoki erraza da, baina gehienbat iraupenaren gaitz egiten da gogorra, bost ordu eta erdikoa baita. Irteera 08:30ean izango da, udaletxe aurretik, eta itzulera, arratsaldean. Autobusaren kostua 12 urtetik beharagoentzat bost eurokoa da eta gainontzekoentzat, 10.

## Hileko azken astebururako eski irteera antolatu du Kultur Etxeak

**Belauntza** » Candanchura joango dira, eta dagoeneko, joan nahi dutenentzat, izena emateko epea zabalik dago.

### ERREDAKZIOA

Kultur Etxeak eski irteera antolatu du otsailaren 27rako. Ostiral iluntzean abiatuko dira eta asteburua Candanchun igaroko dute, pistetan bertan dagoen El Aguila aterpetxean. Bidaiaaren prezioa 130 eurokoa da. Materiala bakoitzak eraman dezake edo Jakan bertan alokatu.

Belauntzarrentzat merkeagoa izango da. Bestalde, lehenatasuna Uliko Mankomunitateko herritarrek izango dute. Izen-ematea Kultur Etxean edo Herriko Jate-txean (asteazkena izan ezik) egin daiteke, otsailaren 22a bitartean. Informazio gehiago 943670020 zenbakian arratsaldez edo [belauntza@euskalnet.net](mailto:belauntza@euskalnet.net)-en.



Kale hezitzaileentzat lokal bat egokitzea erabaki du Udalak; eraikin honetan izango da. HITZA

## Kale hezitzaileentzat lokala egokitzen hasi da Udala

**Ibarra** » 77.000 euroko aurrekontua du proiektu honetarako; egiten duten lana ikusita, instalazio beharra dutela erabaki da.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udala Azkue Diez kalean lokal bat egokitze lanetan hasi da, kaleko hezitzaileek toki egokiagoa izan dezaten beren lana egiteko. Hirigintzako eskuarte honek 77.000 euroko aurrekontua du.

Udalbatzak uste du pertsona hauek egiten duten lana «oso interesgarria» dela udalerriantzat eta horregatik erabaki du instalazio batzuk egokitzea beharrezko ekipamenduarekin «beren lana erosoago eta baliabide gehiagorekin egin ahal izan dezaten hementik aurrera».

Profesional hauen lana ondorengoa da, azterketa bat egitea udalerriko gazte eta adingabeak zein egoeratan dauden jakiteko. Era berean, zeinek duen arrisku faktorerik antzematen ere ahale-

ginduko dira. Talde hori identifikatuta, beren ezaugarriak aztertuko dituzte eta banakako nahiz taldeko programa bat eratu dute beraien gizarteratze laguntzeko.

Ondoren, beste azterketa bat egingo dute eta horrekin jakingo dute zeinek erantzun dion ondo programari. Bestalde, entitate nahiz talde sozialek antolaturiko jardueretan sartzeko dira hauek, hala nola denbora libreko taldeak nahiz hezkuntza zentroak. Hori ezin bada, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzen da.

## Laburrak

### Orain, Angel Martinez da Harizpeko Lehendakaria

**TOLOSA** » Urtarrilaren 17an Harizpe, jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Ohiko Batzar Orokorra egin zuen. Bertan 278 bazkide bildu ziren eta aztertutako gaien artean, zuzendaritza-batzordea nork osatuko duen erabaki zuten. Hala, gehiengo osoz onartu zen, Angel Martinez izango dela Lehendakaria. Lehendakariordea, Felix Antolin; idazkaria, Wenceslao Jimenez eta diruzaina Jose Manuel Ortiz.

### Ohi bezala, Berazubiko danborrada gauz ariko da

**TOLOSA** » Inauterietan, Zaldunita Bezperako danborradan aldaketak egongo badira ere, oihutarri jarraituz, Berazubi elkarteok gauz aterako dira. 22:15ean elkartuko dira Berazubin eta San Frantzisko aldera bideratuko dira. Jarraian, Triangulon elkartu eta Alde Zaharretik barrena ibiliko dira. Datorren asteazkenean, hilak 18, entsegu orokorra egingo dute txarangarekin, zezen-plazan, 20:00etan.



Berazubiko danborrada taldea. HITZA

## Danenako pultsulariak bikain, azken frogetan

**Villabona** » Asteburu honetan, Madrilen izango dira, bertan jokatzeko da Klubaren arteko IV. Federazioen Kopa.

### ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Melillan, Nazioarteko I. Trofeo, Ciudad de Melilla Saria jokatu zen. Kanada, Rusia, Alemania, Ingalaterra eta Espainiako selekzioek parte hartu zuten. Batis Kortajarena, entrenatzailea eta Teddy Martinez, pultsularia Espainiako selekzioarekin joan ziren emaitza onak lortuz. Teddy Martinezek banakako sailkapen orokorrean 2. postua lortu zuen. Eskuetan zuen garaipenak alde egin zion akats tekniko baten ondorioz. Taldekako sailkapenean, berriz, Espainiako selekzioak garaipena lortu zuen.

Bestalde, urtarrilaren 24an Burgoen, Caja de Burgos Trofeo os-

patu zen eta Danena-Olaederra Halterofilia Taldeak, Junior eta Senior diren bina pultsulariekin parte hartu zuen. Taldekako sailkapen orokorrean garaipena lortu zuten hauek. Hainbat taldek hartu zuten parte lehian, tartean: Sol y Luz, Burgos; Anaitasuna, Iruña; Galdakao, Bizkaia; C.H. Balentzia; C.H. Coruña, A Coruña eta Danena. Junior kategorian Igor Sasiainek garaipena lortu zuen eta Iker Hernandez 3. postuan geratu zen. Senior kategorian, berriz, Ekaitz Kortajarena hirugarrena izan zen sailkapenean, eta Francisco Gonzalez bosgarrena.

Larunbat honetan, Madrilen, Klubaren arteko IV. Federazioen Kopa jokatu da, 16 urtez azpikoen kategorian eta II. Federazioen Kopa 18 urtez azpikoen mailan. Bi txapelketa hauetan Espainako ligaren sailkatuak dauden lehenengo bost taldeek har dezakete parte eta Danena bi kategorietan sailkatuta dago.

## Gaur, Herria Kantuz-eko beste saioa, Villabonan



Lehendabizikoa abenduan egin zuten, eta jende ugari bildu zen. HITZA

### ERREDAKZIOA

Abenduan izandako arrakastaren ondoren, bi hilabetez behin Herria Kantuz-en saio bat egitea erabaki dute. Hau, Oinkari Dantza Taldeak, Eresargi Abesbatzak, Loatzo Musika Eskolak, Eresargi Txiki Abesbatzak eta hainbat herritarrek antolatutako egitasmoa da. Halaber, gaur berriro egingo dute. Hori dela eta, Berdura Plazan elkartuko dira 18:00etan.

Musikarien zuzeneko doinuen laguntzaz, gaur arratsaldean izan-

go dute beraz bigarren saioa. Bertan Euskal Kantugintzan ezagun diren hainbat kantu abestuko dituzte denon artean, eta nahi duenak liburuxken laguntza izango du. Egitasmoari hasiera Behar Zana Elkarteak antolatuko duen merienda txiki batekin emango diote. Jarraian kantu-kalejirarekin hasiko dira. Aipatzekoa da ere, Herria Kantuz-eko saioen argazkiak jendeak eskura ditzakeela. Horretarako [www.oinkari.net](http://www.oinkari.net) webgunera jo beharko dute.

**E Elkarrizketa**

**AITZIBER LEKUONA** Korrikaren koordinatzaile taldeko kidea

**Leitza** » Martxoaren 28an, larunbatean, Uitzitik Korrika etorriko da herrira. Kaleak zeharkatu ondoren Basakabi aldetik Goizuetarako bidea hartuko du aldarriak.

**ASIER IMAZ**

Hamaseigarren Korrika Tuteratik irtengo da martxoaren 26an, Gasteizen apirilaren 5ean amaitzeko. Edizio honetako leloa *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira* da. Leitza martxoaren 28an zeharkatuko du lasterketa erraldoiak. Hainbat herritar, jadanik koordinatzaile lanetan dabilta, hauen artean Aitziber Lekuona (Goizuetan, 1982).

**Zein da Leitza eta inguruetan egiten ari zareten lana?**

Printzipioz gure lana koordinatzaile lana izango litzateke. Goizuetan, Leitza eta Areson, Korrikarekin zerikusia duten gauzen inguruan egiten dugu lana: kilometroak salduz, informazioa emanaz, arropa saltzeko aukerak eskainiz...

**Herritar bezala ari zara lan honetan. Nondik sortu zitzaizun aukerak hau?**

Pertsona batek aipatu zidan. Azken finean, AEK-k antolatzen duen lasterkaldi erraldoi bat da, euskararen alde egiten dena. Ni euskaltzalea naiz, eta beti gustatu izan zaitekimena. Goizuetarraizanik eta Leitza bizi naizela kontuan hartuta, Korrikan parte hartzeaz gain jendea ezagutzeko modua ere bada.

**Noiz hasi zineten Korrikaren inguruan lanean?**

Gutxi gorabehera urtarrilaren amaieran.

**Zein izan da orainarteko lana?**

Lehenik Iruñarekin kontaktuan jarri ginen, informazioa bildu eta nola antolatu behar den ikasteko. Horretan gabilta, jendeari kilometroak erosteko aukera eskainiz,



ASIER IMAZ

# «Euskararen alde egiten den lasterketa erraldoi bat da Korrika»

ekarpenak bilduz, parte hartzea bultzatuz...

**Korrika laguntzeko hainbat modu ba omen daude.**

Horieta bat Korrika Laguntzaile izatean datza. Edozein pertsona izan daiteke Korrika Laguntzaile. 12 euroren truke, zure izena duen txartel bat eta pin bat jasotzen dituzu. Ondoren, txartel honenkin beherapenak edukiko dituzu denda, establezimendu, optika, autoeskola eta abarretan. Korrika Laguntzailearen txartela lortzeko

aukera, Leitza, Astiz eta Maimur dendetan eta Torrea eta Gaztañaga tabernetan dago.

**Beste modu bat kilometro bat erostea izango litzateke, ezta?**

Bai. Baina pertsona bakar batek kilometro bat erostea gehiegi dela iruditzen zaigunez, koadrilen artean edota bi, hiru edo bost denden artean erosteko proposamenak egiten ditugu. Bakoitzak ahal duenaren arabera lagundu behar du betiere.

**Korrikako produktuak erostez**

**gain, beste aukerarik ba al dago laguntza eskaintzeko?**

Hauetaz gain, beste norbaitek besterik gabe Korrikari lagundu nahi baldin badio aportazioak egin ditzake.

**Koordinatzaile edo laguntzaile taldeak atek zabalik ditu.**

Dudarik gabe. Talde irekia da eta parte hartu eta lagundu nahi duenak, nirekin kontaktuan jartzeko nahikoa izango du.

**Elkarte edo taldeengana joatean, zer azaltzen duzue?**

Hasteko norik antolatzen duen aipatzen dugu, beraz, AEK-k antolatzen duela azaltzen dugu. Ondoren zer den esaten dugu; Euskal Herri guztian zehar antolatzen den lasterketa erraldoi bat, beste hainbat gauzen artean dirua biltzeko egiten dena. Zertarako? AEK-ren euskaltegiarako eta

**«Euskaltzalea naiz eta euskararen aldeko ekimena izanik beti gustatu izan zait Korrika»**

**«Korrika Laguntzaile edonor izan daiteke; zure izenarekin txartel bat jasotzen duzu»**

**«Goizuetako mugaraino korrika joan daitezen animatu nahiko nituzte herritarrik»**

gau eskoletarako. Horrekin batera kilometro batek zenbat balio duen, nola izango litzatekeen etab. azaltzen dugu. Informazio hau dena duen karpeta txo bat ematen diegu, lasai ederrean irakur dezaten.

**16. Korrikaren leloa, 'Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira' da.**

Banutzen ditugun esku-orri edo karpeta horietan ongi azaltzen da leloaren esanahia. Gure etxera etortzen den pertsona bati ongi-etorria egiten diogun bezala, Euskal Herria datorrenari, euskaraz ikastera datorrenari edota transmititzen ari diren euskaldun horiei ere ongi-etorri zabal bat egin nahi zaie.

**Martxoaren 28an, larunbatean, korrika egiteko prestatu beharko da.**

Horretara animatu nahiko nituzke herritarrik. Herrian edo talde baten kilometroan bakarrik korri egin beharrean, ahalik eta jende gehien Goizuetako mugaraino animatu nahiko nuke. Gero, zurrerena, aukerak eta erraztasunak jarriko ditugu Leitza izulerako bidaia egiteko.

## 'Luze'-ren ostean, gaur Diego Riañoren txanda

**Leitza** » Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken kanporaketa jokatu da gaur Tafallan 17:30ean, Kube Aretoan.

**A. IMAZ**

Laugarren eta azken kanporaketa jokatu da gaur Tafallan 17:30ean Kube Aretoan. 2009ko Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bideak, lehen malda gaudituko du on-



Diego Riaño 2008ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan. HITZA

dorioz. Bihar jakingo da ziurtasunez, Goizuetan zeintzuk izango diren bigarren malda, finalerdiak, igotzen hasiko diren bertsolariak.

18 bertsolari horien artean egoitea gustatuko litzaioko Diego Riaño leitzarrarekin, sailkatu rik aurkitzen den Migel Mari Elosegi Luze-ren ondoan. Horretarako, gaurko saioan maila ona eskaini beharko du Riaño, parean edukiko dituen mendizaleak ez baitira nolana hikoak: Xabier Terreros, Xabier Legarreta Arano, Joxe

Juan Zubieta Etxabe, Ekaitz Astiz eta Xabier Silveira.

**Lehen finalerdiak hilaren 21ean**

Tafallako saioaren ostean, Nafarroako Txapelketaren hiru finalerdiak jokatu dira. Lehena Goizuetan ospatuko da otsailaren 21ean. Bigarrena Altsasun izango da hilaren 28an. Azken finalaurrekoa Antsoainen lehiatuko da martxoaren 7an. Hiru saio hauetako zortzi onenek finala Elizondon jokatu dute martxoaren 21ean.



11°  
2°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 13°  
HOTZENA 3°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaalde@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Zizurkil.** Zizurkil goiko Zentroan bertso emanaldia izango da Iñaki Gurrutxaga, Amaia Agirre, Uxue Alberdi, Unai Muñoa eta Aitzol Barandiaranekin. Gai jartzaille lanetan Egoitz Aizpurua arituko da.

### Jaiak

■ **Anoeta.** Dantza Soka eguna: 8:30ean dantzariak plazan eta barrietara, 11:30ean Loatzo Musika Eskolako ikasleek kalejira, 12:00etan mutilen dantza plazan; 13:30ean babarrun jatea; 17:00etan nesken dantza; pilotakuan nesken dantza eta gero erromeria trikitalariek.

### Inauteriak

■ **Berastegi.** 17:00etan herriko txikien dantza saioa, ondoren txokolatada, 18:30ean poteoa txaranga-ren laguntzarekin eta 21:00etan afaria.  
■ **Lizartza.** 07:00etan kalejira dantzari, txantxo eta txistulariek; 07:30ean Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospetetik; 09:30ean Etxe-zahar base-rrian geldialdia gosaltzeko; 12:00etan Mozorro, gurdi eta txarangen irteera; 13:30ean kalejira.  
■ **Tolosa.** Inauterietako haur jaialdia Leidor aretoan 16:30ean, Vele-ta-Aiz Orratz elkarteak antolatuta.

### Zinema

■ **Villabona.** Gurea aretoan, *Gomorra* filma gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta hilaren 16an, astelehenean, 21:30ean. *Mision en McLand* filma gaur eta bihar 17:00etan.  
■ **Tolosa.** *7 almas* filma Leidor aretoan bihar 19:30ean eta 22:00etan eta etzi 20:30ean.  
■ **Leitza.** *Gomorra* filma emango dute zinemari bihar 19:30ean.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Santillana del Mar-era irteera antolatu du hilaren 17rako. Izen-ematea, elkartean 12 eurotan. Gosharia Quevedan, promozio komertziala eta bazkaria musika, dantza Rocío romeriarekin.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



## Neurriak hastear diren jaietarako

**TOLOSA** • Sei egun besterik ez, eta Inauterietan murgilduta egongo da herria. Horretarako, ordea, neurriak prestatuta egon behar du. Izan ere, aurten erronka berezia zuen Tolosak Inauterien aurrean kolektorearen lanak direla eta. Hala, honek ahalik eta enbarazu gutxien egiteko hainbat neurri berezi hartu beharra izan dituzte. Esaterako, karrozen eta danborraden ibilbideak aldatu egin dituzte, hauek ez dira San Frantziskotik igaroko. Bertatik konpartsak igaro ahaliko dira, baina batez ere, San Frantzisko elizaren parean obren-gatik bidea asko estutzen denez, bertako iturria kentzea erabaki du Udalak. Hain zuzen ere, atzo kendu zuten iturri hau, eta Inauterien ostean berriro jarriko dutela azaldu dute, data zehatzik aipatu ez duten arren. Oztopoak oztopo, betiko giro onik ez da faltako Inauterietan. I. GARCIA

## A Agurrak



**Urte askoan!**  
**Ainhoa Peña Olano (Ibarra).**  
Gaur 8 urte. Zorionak bere familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

**Villabona**  
optika

**%30** eko deskontua  
monturetan

Kale Berria 23A • Villabona • Tel.: 943 11 18 40

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**  
Jatorrizko Sagardoa

**SARASOLA**  
ondo pasa  
Inauteriak!

Sagardotegia - ASTEASU  
Tel.: 943 69 02 83  
Zumalkardi Baserría - ANOETA  
Tel.: 943 65 26 22